


Ezpalak

JON TORNER

Ion Arregik, Beatriz Txurrukak eta Lehiork Bilbaok irabazi dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak antolatzen duten Artista Berrien Lehiaketa. Hogeita hamabost urtetik beherako 59 artista gipuzkoarrek hartu dute parte lehiaketan. Ion Arregik eta Beatriz Txurrukak bukatuta dauden obren saria jaso dute, 7.500 eurokoa. Lehiork Bilbaok berriz, proiektuan dauden obren saria eskeratu du, 3.000 eurokoa.

Unai Esparza Vianako liburuzainak eta Javier Aós ilustratzaileak *Alegiazko errealitatea*. *Vianako Ipuinak* liburua kaleratu dute, Nafarroa Oinez festarekin –hilaren 21ean ospatuko da Vianan– bat eginez. Esparzak umeentzako ipuin saioak antolatzen zituen hilabetero Vianan, eta bertan kontatutako hamasei istorio, kondaira eta pasadizo bildu dituzte liburuan.

Aitor Ruiz de Eguino eskultoreak eta Emilio Varela pintoreak Donostiako Kutxa Boulevard aretoan jarri dituzte ikusgai euren obrak. Ruiz de Eguinoren aluminiozko eskulturez osatutako erakusketa (*Adarraren magaletik* izenekoa) eta Varelaren margolanak biltzen dituen (*Maskara eta kantua*) urriaren 21a arte izango dira zabalik.



Bilboargazki'07



Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak Bilbon egingo du aurtengo biltzarra, hilaren 19tik 21era. Bi egun horietan ez ezik, urriaren zehar eta azaro hasieran ere hainbat ekitaldi izango da Bizkaiko hiriburuan. Bilboargazki'07 ekimenak bost erakusketa, bi hitzaldi eta tailer bat jasoko ditu. BBK kultur aretoan, adibidez, Gabriel Grau argazkilarikataluniarrak *Afrikako argiak* bildumako irudiak jarri ditu ikusgai. Besteak beste, Keniara, Tanzaniara, Senegalera eta Malira egindako bidaietan ateratako argazkiak bildu ditu (goiko irudia horietako bat da). Halaber, Espainiako Argazkilaritza Saria emango diote Grauri Bilbon. Egitarauak jasoko dituen beste bi ekitaldi esanguratsu Ricky Davila *freelance* bilbotarrak eskainiko duen tailerra (hilaren 26an) eta Santiago Bernal segoviarrari egingo dioten omenaldia dira. FNAC aretoan Bernalen argazki osatutako erakusketa paratu dute, *Begirada bizia* izenburupean.

Santurtziko Antzerki Jaialdia

ZAZPI OBRA ESTREINATUKO DITUZTE hilaren 19tik azaroaren 30era luzatuko den Santurtziko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren 28. edizioan. Hil honetan Pep Anton Gomezen *Descalzos en el parque* (19an) eta Calixto Bieitoren *Los persas: Réquiem por un soldado* (26an) antzezlanak eta Nafas konpainiaren *Good night... Amadeus* (20an) dantza ikuskizuna eskainiko dituzte aurrenekoz. Orotara 20 emanaldik osatuko dute egitaraua. Umeentzako zikloaren baitan eskainiko diren obrez gain, euskarazko bi antzezlan izango dira ikusgai Santurtzin: Kanpin-gags taldearen *Lapur-zuloa* (azaroaren 10ean) eta Tanttakaren *Emakumeak izarapean* (15ean).

Juan Carlos Ibarrak Deian: «Polemika handia sortu du Katalunian ea Frankfurteko Feriara joan behar luketen gatzeleraz idazten duten idazle kataluniarrek (...) Idazle hauen parte hartzearen alde agertutako batek zioen, hizkuntza autonomikoak 'hizkuntza espainiarrak' zirela azken finean (...) Hizkuntza espainiarreko idazle al da Baionan euskaraz idazten duen bat? Joan behar al luke Frankfurteko Feriara, kataluniar kulturaren omenaldiaren barnean, frantsesez idazten duen Perpinyako idazle batek? Eta euskaraz idatzi eta Bartzelonan bizi den idazle batek?».

Mikel Laskurainek Berrian: «Ohitu naiz aktore ogibidera. Lanik ez edukitzeak edo ez jakiteak hiru hilabete barru zer edukiko duzun... hori okerrena! Eta onena, ba beti desber-

dina dela, eta ez dela batere monotonoa. Ikuskizun bat estreinatu eta bi urtera bukatuta dago. Betiko ez dela ezer; sentsazio hori beti daukagu buruan: 'Hau akabo egingo da, eta aurrera!' (...). Sekula ez dugu ahaztu behar ezer ez dela betiko. Aktore baten kexarik handiena lanik ez edukitzea da, eta gu oraingoz ezin gara kexatu. Lana edukiz gero, oso ofizio ona da. Nik hori onartzen dut: oso ondo bizi gara».

Toti Martinez de Lezeak Garan: «Orain gutxi nonbait irakurri dut (...) idazleek politikarekin 'konprometitzeko' duten betebeharrak. (...) Zer dela eta konprometitu behar du politikoki idazle batek eta ez igeltsero, idazkari edo futbolari batek? Eta konprometitzekotan, zein ideia politikorekin?».

Beste azentu batekin

Euskal Erbesteari buruzko VIII. Nazioarteko Mintegia

“Beste azentu batekin” itzuli zen Martin Ugalde Euskal Herrira. Venezuelako urte luzeen poderioz, irakurle bolibartarraren aurrean sentitzen zuen zorraren ondorioz, aldatu zitzaion doinua andoaindarrari.

Egunotan ospatzen ari da, Hamaika Bide elkarteak antolatuta, Euskal Erbesteari buruzko VIII. Nazioarteko Mintegia, *Erbestea: Historia eta kulturarako debatea* izenburupean. Urriaren 17an hasi eta 20ra bitartean erbesteko euskal kultura, literatura eta pentsamendua izango dituzte hizketagai Deustuko Unibertsitatean eta Donostiako Udal Liburutegian. Tartean, Martin Ugalderen irudia ere aztertuko dute, noski.

Mintegiak bi aro desberdinu ditu, gerra aurrekoa eta gerra ondorengoa. Euskal Herritik eta Europako hainbat unibertsitatetik etorritako ikerleek erbesteaz hitz egingo dute. Nola ulertu liteke erbestea baina? Galdera horri erantzuten saiatuko dira. Erbestea ez da bakarra, Euskal Herrian erbesteak izan dira –pluralen–. Izan ere, ez da berdina erbesterratu bat, edo deserritu bat. Lehenengoari bihotza erdibitzen zaio, baina bigarrenak Euskal Herrian uzten du barrua.

“Edozein aldaketa, edozein eboluzio aberrik kanpo, traizio baten antzera agertzen da”, zioen Martin Ugaldek.

Herrimaren kultura da erbestearena, halabeharrez sorturikoa; eta Euskal Herritik joan behar izan

zirenen artean paradigma da Andoaingo idazlea. Venezuelara joan ez balitz, ez omen zen idazten hasiko. Beraz, erbesteak sortzen du herrimina eta honek barne sorkuntza. Ugaldek euskarazko lehen ipuin liburu modernoa idatzi zuela entzun diegu gaurko idazle adituei: *Iltzailleak* (Caracas, 1961). Amerika urrunean, sorterriarekin kasik harremanik izan gabe, puntako literatura idatzi zuen. Nondik atera zuen horretarako gaitasuna? Nondik indarra?

Donostiako mintegia bezalako ekitaldiek erbesteko kultur gileen lana ezagutzeko parada ematen dute. Baina garrantzitsua da ezagutza hori partekatu eta gainerako ikerleekin alderatzea, baldin eta Ugartek barne kreazio hori nondik atera zuen doituko badugu.



URKO APAOLAZA

kulturagenda

Urriaren 15etik 31era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Batekmila-Euskal munduak

Areto nagusia. 19:30

Urriak 16. Auxtin Zamora

Lastozko Ihesgunetan (entzunikus lana)

Urriak 17. Bertsotranpak

Partaideak: Ander Lipus

Andoni Egaña | Xabi Paya | Fredi Paia

Urriak 18. Ornitorrinkus

Partaideak: Maialen Lujanbio | Judith Montero

Xabier Erkizia | Juan Gorriti

Ibai Gogortza | Iñigo Telletxea

Multimedia erakusketa

Batekmila-Euskal munduak

Ganbaran

Irailaren 19tik azaroaren 17ra

Erakusketa

Artista Berrien XLII Lehiaketa

Urriak 9- azaroak 10



arteleku

Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Ikastaroa

Bideo digitala editatzea: Kino

Urriak 22-26

Emaila: Román Muñoz

Orduetgia: 10:00-14:00 | Prezioa: 30€

Taldeak: 10 lagun gehienez

Symposiuma

Hiri ekoizpenak: hiru ikuspuntu, hiru eskala, hiru azterlan

Azaroak 5-23

Koordinazioa: Hiria Kolektiboa (Euskadi),

Jaime Iregui (Kolonbia),

16beavergroup (N. York)

Orduetgia: astelehenetik ostiralera,

goizez eta arratsaldez

Izena ematea: Urriak 26

www.hiriekoizpenak.net

